

Doktoreak honoris causa Euskal Herriko Unibertsitatean

Joxe Azurmendi

Zein sentiera-tipo aukeratuko dugu eredu? Zein pentsamen-duk beharko lituzke gure ikerlariak, pentsalariak, artistak, ikasle-irakasleak, argitu eta gidatu, askatasuna eta bakea nahi omen ditugunez gero? Pinillos-en askatasunak? Jünger-en bakeak?

1. Piramideak: batek faraoien handitasuna ikusten dizu, besteak milaka esklaburen sufrimendu handia.

“Tebas, la de las Siete Puertas, ¿quién la construyó?

En los libros figuran los nombres de los reyes.

¿Arrastraron los reyes los grandes bloques de piedra? (...)

La noche en que fue terminada la Muralla china

¿a dónde fueron los albañiles? (...)

El joven Alejandro conquistó la India.

¿El solo?

César venció a los galos.

¿No llevaba consigo ni siquiera un cocinero?

Felipe II lloró al hundirse

su flota. ¿No lloró nadie más?”

Hori B. Brecht-en sentiera da. Baina B. Brecht, "betiko" saltsero horietako bat zen, jakina da, festa izorratzen zuen bat.

E. Jünger-en sentiera bortitzean, aldiz, sentimentalismo hutsak dira kontu horiek. "Nada quedó de la elevaciones del alma, durante la construcción de las Pirámides. De los innumerables sufrimientos soportados entonces, de tantas dichas aniquiladas, de las esperanzas de los Estados y de los Reyes, nada subsiste hoy. Pero siempre nos emocionaremos ante el espectáculo de esos monumentos que constituyen la Historia y desde donde llega hasta nosotros la voz poderosa y solemne de una voluntad libre de todo sentimentalismo".

Historia ez dira pertsonak: zein sentimental txorok uste du hori?

2. Euskal Herrian gaude eta ez dugu sentimentalak izan behar. Gauzak diren bezala hartu behar dira. Gure historia gogorra da eta asumitu egin behar da.

Gure eredua, hortakoz, Euskal Herriko Unibertsitatean, E. Jünger izango da eta haren historiaren filosofia gurea. Hauxe da filosofia hori: kulturaren eta zibilizazioaren ama, gerra da. *Gerra, gure ama* du liburu baten izenburua. Majestatzeko ama galanta. "Las grandes batallas revisten una majestad eterna que domina la trama ininterrumpida de la historia (...), mostrando así que el hombre en relación con ellas es únicamente *el instrumento de una Voluntad Superior*". Ez, pertsonak ez dute ezer pintatzen historian: Borondate goitar batek gidatzen du historia.

Borondate olinpiko goren hori, gerran eta (gure irudipenerako) txikizioan ageri bada ere, Bizitza da, letra handizko Bizitza, historiaren Probidentzia bakarra.

3. Azpi-azpian beste filosofia vitalista hauxe dago: mundua zer dabilen eta historia nora doan gidatzen duena, ez da Adimena (Jainko jakitunen bat, Bibliako Jaungoikoren bat), baina munduaren beraren barruko Indarra. Bizitza materialean energiak hedapena eragiten du. Indarrak espazio berriak okupatzea irrikatzen du. Espantsioan adierazten eta azaltzen da. Argiak bezala energiak zabaldu egin behar du. Goragoko mailetan energia hori, unibertsoaren zer-izan esentziala, Bizitza da. Bizitza ere inguruko bizitz espazioak okupatuz, menperatuz, irentsiz, bere bihurtuz, asimilatuz, desarroilatzen da. Katuak, bizitzeko, harripatu, txikitu, jan, liseritu egin behar du txori kantaria. Txoriak,

eulia, etab. Bizitza bizitza desegitetik eta irenstetik bizi da, txiki-ziotik garatzen da.

4. Gerra, beraz, bizitzaren hedapena da. Herri bat aldame-nekoa irenstetik handitzen eta indartzen da. Gerra, bizitza indartsu eta sano baten baldintza *sine qua non* da. “Siempre ha habido combates y guerras, pero es la Vida, bajo el aspecto más terrible que el Creador le haya dado jamás, la que se desenvuelve aquí en la sombra”.

Gerra modernoaren ikaragarriak berak, dakartzan holo-kaustoeekin, izutu barik, entusiasmatu egiten du E. Jünger, Unibertsitateak Euskal Herriari eskaini dion jaun eredu hori: “¿Hasta cuándo deberemos esperar que acontecimientos tan magníficos como la gran batalla de la primavera de 1918, o la batalla naval de Skagerrak, se erijan por encima de los tiempos como monumentos que el hombre no puede tocar? Cuando (...) se hayan derrumbado los Estados cuya suerte se decidió en unos minutos, en unas horas, no quedará del pasado verdaderamente nada sino la visión retrospectiva y emocionante de una ola impetuosa de la Vida – de la Vida que había entonces revelado su verdadero aspecto: un juego magnífico y sangriento que regocija a los dioses”. Gerra da jainkoen festa, izpiritu bortitzen poza. Esklabu-izpiritu ttattarrak bakarrik ikaratzen dira gerrarekin.

Honek denak, ez bedi pentsa, ez dauka erretorikarekin zeri-kusirik: fedea da, erlijioa da, nahi duzuna da, konbentzimendu erradikal bat da, filosofia sendo eta koherente bat, bere klasikoak dauzkana eta E. Jünger errepresentante ezagun bat dena. Historiaren kontzeptu horrorezko bat – Unibertsitateak eredutzat eman diguna: literarioki idazle paregabe bat izateak ezertan hobetzen ez duena. Historiaren ama itsua gerra da. Atera kontuak. “La bala es ciega, su trayectoria involuntaria. Pero el hombre lleva en sí *una voluntad de matar* (horrelaxe da gizakia naturaren eta historiaren tresna pribilegiatua) que se expresa en las tormentas en las que se acumulan los explosivos, el fuego y el acero (Lehen Mundu-Gerrako gudu handiak). Las leyes de la guerra exigen la destrucción de uno de los dos adversarios que saltan uno contra otro en la embriaguez del combate. Se han colocado en una situación tan vieja como el mundo, la de la lucha por la vida, bajo su aspecto más realista. En un combate así, el más débil sucumbe; el vencedor, blandiendo su arma, penetra más profundamente en la vida y prosigue su marcha victoriosamente escalando el cuerpo maldito. El grito que resuena entonces de

una y otra parte es el llamado desesperado de los corazones ante las puertas de la eternidad. Es un estertor cuyo eco transporta el río de la civilización desde hace siglos, es un grito de reconocimiento, de horror y de sed de sangre”.

5. Egun hartan: “Egunkari batek, betikoak noski, protestatu egiten du berriz ere, baina gehien-gehiengoak euskal intelektualetarik, eta, esan dezagun, parte sanoak, egoki eta edertzat eman du E. Jünger-en ohorapena doktore honoris causa bezala Euskal Herriko Unibertsitatean, eta jaia jai-giro ederrean ospatu da Leioan”, aritu zitzaizkigun errepikatzen euskal telebista biak, euskal ETB eta ETB espainola alegia, eta bietan esatariak egunkaria jaso eta erakusten zuen eskuan, in fraganti harrapatuaren ebidentzia gisa.

Esatari gaztea zen eta bere asuntua da *Egin*-i sinesten ez badio, seguru asko ez zeukan E. Jünger zein den zergatik ondo jakin ere. Baina hemengo “intelektualeria” gehien-gehiengotar horretan *a priori* gehiegi fidatu gabe, gutxienez *Encyclopaedia Britannica* bat kontsultatu izan balu, esaterako, eta ez dut uste sospetxosoa irudituko zaionik, jakingo zukeen, jaun horrek bere gorabeherak izan dituela bere bizitzan, baina 1936an Gernika bonbardatu zuten tropen herriko kulturari zein ohoratu bilatzen hasi eta, apenas dirudiela egokiena 34ean gerraren halakoxe apologiak publikatzen zituen gizonak (*Britannica*-k: “a formerly ardent militarist and nihilist”, etab.). *Correo* eta *Diario Vasco*-ko “intelektualei” sinestu ordez, halaber, gutxienez *Revista de Occidente*-koei sinestuko balie, aipatzen ari garen itzulpenen hitzaurrean, hauxe irakurri ahal izango zukeen: “E. Jünger – soldado de extraordinario valor (fue herido siete veces en la Primera Guerra Mundial), penetrado de la idea de la vida como aventura, Jünger forjó en sus libros anteriores a 1939 un código de valores neorrománticos y aristocratizantes, que veía en la guerra la forma de acción heroica y sublime que domina la historia y revela la esencia misma de la vida y del hombre”.

Batzuetan lotsa ematen du euskaldun izateak.

6. Morala predikatu nahi izaten digutenak dira, gero, “intelektual” gehiengotar satisfetxo horiek. Non geratzen da hemen “moralá”?

Morala, indarririk ez daukanarentzako da. Indarra daukanak, nahikoa du indarrarekin, moralik ez du behar. Nietzsche *dixit* eta Jünger doctor *docuit*.

Eta non geratzen da bizitzaren sakratua? Bizitza sakratu bakarra bizitza garailea da. Garaituak hil egin behar du, oparia da sakrifizioan.

Nietzsche eta Spengler irakurrita dakigunez (Jünger eta Mirande bezalako enbustuak eta doktoreak), bizitzaren indarrak gure baitan bizten duen "gogo basa" da gerrak handikiro jaregiten eta unibertsioan ernalkor barreiatzen duena: "En las discordias y en la guerra, en las que el hombre rompe todas las convenciones y todos los tratados que no son sino harapos remendados de un mendigo (horixe besterik ez da morala!), la animalidad sube del fondo del alma como un monstruo misterioso (giza-animaliaren barneko natur indarra). Surge cual llama devoradora, cual aturdimiento irresistible que embriaga a las masas, como una divinidad que reina sobre los ejércitos. Cuando todos los pensamientos y todas las acciones se concentran en un solo esfuerzo hacia un mismo objetivo, el sentimentalismo también debe esfumarse, adaptarse a la horrible simplicidad de ese objetivo: *el aniquilamiento del adversario*. Es éste un axioma que deberá realizarse durante todo el tiempo que los hombres hagan la guerra, y *habrá guerra mientras existan los hombres*".

7. Aparte Jünger-ek eboluzionatu egin zuela (Bigarren Mundu-Gerran semea hil zitzaionetik batez ere), ni ez naiz filosofoak eta literatoak faxista izan al ziren ala ez ziren planteamoldearekin problemak eztabaidatzeko batere zalea, ezta "faxismo" hitzaren orain egiten den erabilera estupiduaren zalea ere. Dena den, doktoreak honoris causa izendatu nahi badira, zerbait kontatu beharko luke pertsona baten irudiak munduan. Mitterrand-ek, hain zuzen garaia dela gerra denborak ahazteko, erakustearren, Jünger bisitatu nahi badu, oso ondo. Horrelakorik egitea guri Euskadin tokatzen bazaigu, ridikulo samarra iruditzen zait, baina, tira, konforme, nahi bada. Demokraziaren eta pazifismoaren eta pentsamendu independente librearen eredutzat jarri nahi badigute, aldiz, non arraio munduan dauka irudi hori beti "iraultzaile kontserbakoiak" taldean aipatzen den literato, ezen ez filosofo, honek? Zer omenaldi egin diote ingelesek, polakoek, txekiarrek? Zergatik merezi zuen hain zuzen gurea, zeinek eta horrexek?

The Encyclopedia of Philosophy, 8 tomatan, nik uste dut munduan entziklopedia filosofikorik errekonozituena izango dela, eta hori ere ez dut uste hemengo "intelektualek" sospetxosoztat edukiko dutenik. Ikus bedi, beraz, hor ere (vol. III,

312-314), E. Jünger faxismoaren aitzindari eta bide-urratzaileen artean kontsideratua, apenas eredugarria ematen duen irudiarekin, eta ez *Egin*-eko "betiko" endredatzaileek horrela desfiguratu, baina filosofiaren entziklopedia anglo-amerikano guztiz ponderatu handian... Doktore bat egin behar honoris causa eta, horixe hautatu beharra zegoen? Hori ohoratzen al du euskal "intelektualeriak"?

8. (Aitor dezadan, ni sentimental bat naizela, eta sentimenduek denbora txarrak dituzte denborotan).

Unibertsitatean zientzia landu behar da, teknika berriak, artea, poesia. E. Jünger-ek honela irakasten digu zein arte eta zientzia behar den landu, zer den orain edertasuna eta poesia –agian horregatik zor zion gure Unibertsitate gazte noragabeak ohorapena: "Hoy escribimos poesía con el acero, epopeyas con el cemento armado. Es por la preeminencia del poder por lo que luchamos en esas batallas en las que los acontecimientos se encadenan con una precisión mecánica. En esos combates por tierra, por mar y en el aire, en los que el ardor de la sangre se reprime y gobierna las maravillosas y poderosas obras maestras de la técnica (gerrako makina modernoak), existe como una belleza velada de la que ya teníamos el presentimiento. Y yo puedo representarme perfectamente que, en el porvenir, esas manifestaciones de una raza dotada de un espíritu realista y de un carácter enérgico, serán contempladas como una magnífica orquídea que no exige más justificación que la de su existencia".

Gerraren, indarraren, heriotzaren, kiskalpenaren azken glorifikazio hau, bukatzeko, heroiko eta metafisikoa, ia-ia biblikoa bere tonuan, eskubide guztiak, moralak, erlijioak, zuzenbideak zakarrontzira boteaz historian: "Todo es vanidad en este mundo. Sólo la Emoción es eterna; sin cesar desenvuelve ante nosotros espectáculos de una magnificencia despiadada. Sólo a muy pocos hombres les es dado poder hundirse en su sublime inutilidad como en la contemplación de una obra de arte o en el hechizo del cielo estrellado. Pero aquellos que han visto en la última guerra sólo un desafío lanzado a la civilización, aquellos que únicamente han sentido y conservado la amargura de su propio sufrimiento (zer da, historian, izan ere, pertsonatxo batzuen tragedia?), en lugar de reconocer en ella el signo de una alta afirmación, éstos han vivido como esclavos (begira: esklabuen moralak da eskubide, amets, itxaropen pertsonaletan sinestea; jaun bortitz nietzscheanoek ez dute horrelako ilusiorik erabiltzen). No tuvieron Vida

Interior, sino solamente una existencia pura y tristemente material". Ez dira iristen pertsona izatera ere. Ez dute izpiriturik. Auschwitz-en materia puska batzuk usteldu dira.

Bizitza, horixe da. "Es la vida tal como debe ser la que pasa ante nosotros, la Vida: esfuerzo supremo, voluntad de combatir y dominar a la manera de nuestro tiempo, bajo formas que no son personales, bajo el aspecto más imponente y más salvaje que se pueda concebir. Frente a ese perpetuo desencadenamiento de fuerzas hacia el combate, todas las obras se desvanecen, todas las concepciones (erlijioak, moralak, filosofiak alegia) están desprovistas de valor".

Danke schön, País Vascoango Unibertsitate horri.

J.A.